

Errenteria

HERRI BIZIA 

KALEKO EDERTASUNAREN ZAINDARIAK

Color y belleza en Errenteria



*Kirol
baliabideak*

3. ORR. >>

Argazkiak

6. ORR. >>

Herri Bizia

8. ORR. >>

Lorezainak

12. ORR. >>

*Errenteria
Bizia*

15. ORR. >>



KIROLARIEKIN

Errenteria

12.293

ABONATURIKO PERTSONA
Personas abonadas

POPULAZIOAREN

32,32%

De la población

26

KIROL ELKARTE FEDERATU
HAINBAT KIROLETAN clubes
federados en deportes diferentes

168

ESKOLA TALDE ETA
TALDE FEDERATU
Equipos federados y escolares

46

EMAKUMEZKO TALDE
Equipos femeninos

20

TALDE MISTO
Equipos mixtos

UDALAREN DIRULAGUNTZAK Subenciones municipales ✓

307.350€ Kirol federatura Deporte federado

115.900€ Eskola kirolera Deporte escolar

errenteria.eus/kirola

245.893

BISITA KOPURUA
número de visitas



13,300km

BIDEGORRI ERABILGARRI
útiles de bidegorri

11,800 km

BIDEGORRI PLANIFIKATUTA
de bidegorri planificados



Actividad física: necesaria y segura

Errenteria es una villa activa, también en lo que se refiere a la actividad física. Los datos dicen que gran parte de la población entiende que realizar ejercicio diario, sea cual sea su intensidad, es beneficioso. El Ayuntamiento ofrece para eso una oferta variada y completa de instalaciones y actividades.

Errenteria cuenta con 11.949 abonados y abonadas en sus instalaciones deportivas, 6.033 hombres y 5.916 mujeres. Es decir: más de un dato: 500.000 personas utilizan al año, con su abono, dichas infraestructuras, lo que significa que cada habitante del pueblo accede, de media, 12 veces al año a dichas instalaciones. Pagando una cuota anual en cualquiera de sus modalidades, el abono permite tanto acceder a las instalaciones muni-

cipales como aprovechar todas las actividades y cursillos que se organizan, sin ningún tipo de límite.

Todo eso no sería posible sin equipamientos y políticas dedicadas a la actividad física. La villa cuenta en la actualidad con dos instalaciones deportivas multiuso con piscina, Galtzaraborda y Fanderia. En verano se abren las piscinas descubiertas de Beraun. A todo lo anterior hay que añadirle los campos de fútbol y el frontón de Fanderia, y el estadio Mikel Odriozola y la instalación multiusos cubierta de Beraun. Además, en todos los barrios hay equipamientos al aire libre, sean frontones, canchas multiusos (fútbol, baloncesto...), aparatos para hacer gimnasia, u otro tipo de elementos. No solo eso: hay clubes deportivos que tienen sus propias instalaciones. Resumiendo, Erren-



«2018an abiatutako Udal Plan Integralak bizitza osasungarri eta aktiboak sustatzea du helburu»

4

tería es una población que disfruta con la actividad física, y las instalaciones que hay son bien valoradas por la ciudadanía. Estas personas se sienten bien siendo activas físicamente.

Quienes trabajan en el Departamento de Deportes del Ayuntamiento de Erreterria apuntan que, más allá de su simple uso, en sus instalaciones, tratan de ofrecer una oferta amplia y dedicada a todas las personas, cualquiera que sea su edad. Hay desde cursos infantiles, hasta los dedicados a personas adultas, recogidas todas ellas la parrilla de actividades denominada Kirol Ekintzak. Las actividades pueden ser acuáticas, como de sala: ciclo indoor, aerobio, zumba, pilates, body combat, yoga, tai chi... También se puede acceder a actividades más específicas para mejorar el rendimiento o la técnica

en deportes concretos. Entre los y las cursillistas infantiles y adultos, suman un total de 1.500 usuarios y usuarias cada año de media.

Plan estratégico

«Practicar actividad física es bueno y positivo para todas las edades. Mantenerse activo y practicar algún deporte es una buena forma de construir una buena base, con salud, para afrontar la vejez», sostienen desde el Departamento de Deportes. En ese sentido, el Ayuntamiento aprobó en el año 2018 el Plan Integral de la Actividad Física, que persigue movilizar a las personas para que adopten un modo de vida físicamente activo y saludable.

En este sentido, desde Deportes han hecho especial hincapié en las personas de mayor edad. Además de la oferta que tienen en los

centros para personas jubiladas, pueden disfrutar de actividades en las instalaciones deportivas municipales: «Por ejemplo, organizamos paseos saludables gratuitos para nuestros mayores, que tienen gran aceptación».

En el estudio realizado por el Ayuntamiento de Erreterria en el verano de 2018 para evaluar los indicadores de seguimiento del Plan Estratégico de Erreterria 2025, se preguntó a la ciudadanía sobre su nivel de actividad física. La mayoría (72,4%) respondió que realiza «actividad física o deportiva regular», por lo tanto, se consideran «personas activas». Se tiene en cuenta como actividad física regular el hecho de pasear, caminar, trabajar en su huerta o jardín, gimnasia suave..., actividades todas ellas que requieren algo de esfuerzo. El 24,8% se consideran personas «no muy acti-

vas» y realizan una actividad diaria normal en casa (hacer gestiones, ir de compras, dar una vuelta, ...). Son muy pocos los casos, el 2,8% de personas, que indican que son totalmente o casi «personas inactivas».

Espacios seguros

«Aunque los indicadores de participación deportiva en la villa son altos y reflejan que Erreterria tiene una población activa, no podemos olvidar el efecto que está teniendo en nuestros hábitos diarios la crisis sanitaria provocada por la COVID-19. Esta nos obliga a crear nuevas iniciativas para dinamizar el deporte en Erreterria», aseguran desde el Departamento de Deportes.

La crisis sanitaria ha afectado en el día a día. Las instalaciones deportivas municipales han estado cerradas más de tres meses, y una vez abiertas, las limitaciones de uso han sido



Irati Diez

«*Lasai eta gustura dator jendea jardueretara*»



Ekhi Gomez de Segura

«*Jendeak ikusi du segurtasuna bermatuta dagoela*»

significativas. De todos modos, el Departamento de Deportes remarca que el funcionamiento del exigente protocolo de prevención de la COVID-19 funciona de manera satisfactoria. Se han establecido reducciones en los aforos, hay distancias de seguridad y medidas de higiene en todos los espacios (cursillos, vestuarios, duchas...). El número de personas que están utilizando esas instalaciones en cada momento se puede seguir en internet, accediendo mediante la web <http://erreterria.eus/kirolak>.

Todos estos lugares son espacios seguros. El personal de las instalaciones ha recibido la oportuna formación para que no se escape ningún detalle en cuanto a la seguridad, y la medidas de control están funcionando. El Departamento de Deportes ha agradecido la colaboración de las personas usuarias.

Seguru ari dira

Jada abian dira ikasturte berriko ikastaroak Erreterriako kirol instalazioetan. Ukaezina da COVID-19ak baldintzatu egin duela aktibitate horien nolakotasuna. Baina gauza bat nabarmendu behar da: Erreterriako kirol azpiegituretan jardura fisikoa egitea segurua da. Hau da, koronabirusaren eragina murrizteko beharrezkoak diren neurri guzti-guztiak hartu dituzte, eta gainera, bai irakasle eta begiraleek, nahiz erabiltzaileek horiek betetzen dituzte. Hori baieztatu dute Irati Diez eta Ekhi Gomez de Segura begiraleek.

Dizek aretoko ikastaroak ematen ditu, batik bat, Fanderiako nahiz Galtzarabordako kirol guneeetan. Kirol instalazioak konfinamenduagatik ia hiru hilabetez itxita egon ondoren, begiraleak espero zena baieztatu du: gogoz itzuli dira jardueretara erabiltzaileak. «Hainbeste denboran geldirik egon eta gero baten bat gihar-minarekin egon da, agujetekin, alegia; baina herritarrak gogoz eta gustura etorri dira ikastaroetara eta eskoletara».

Musukoarekin ibili (kirol jardura egin bitartean, ez), eskuak garbitu, distantziak mantendu, zapatillak garbitu, aldeztu aurretik hitzordua eskatu era telematikoan aforoak errespetatzeko... Horiek dira erabiltzaileek egin behar dituztenetako hainbat osasun segurtasun arauak betetze aldera. «Hasieran, beharbada, neurriak ezagutu arte urduri samar egon zen, ezinegon apur batekin. Behin arauak zeintzuk diren ikusi eta ikasita, eta inongo arriskurik ez dagoela jakinda, lasai eta gustura dator jendea jardueretara». Begirale eta irakasleak ere ohitu egin dira egoerara, eta jada errutinaren barruan txertatu dituzte neurriak.

Ekhi Gomez de Segura, batez ere, igeriketa ikastaroetan aritzen da irakasle, haurrekin nahiz helduekin. COVID-19agatik eskaintza orokorra murriztu egin dela jakinarazi du, baina baita horietan dauden ikasleen kopurua ere. Osasuna lehen lerroan jarri dute. «Segurtasunarena hasieratik oso argi genuen, lehen egunetik. Gure segurtasuna eta jendearena ziurtatu behar zen. Adibidez: instalazioan maskara beharrezkoa da, uretara joateko izan ezik; ni neu denbora guztian maskarekin nabil lanean, uretan ere (maskara berezi batekin); uretara botatzerakoan, ilaretan, beti distantzia mantentzen da». Aretoko jardueretan, nahi duenak une oro (kirol jardura egin bitartean ere, alegia) maskara jantzita izan dezakeela zehaztu du.

Gogoz ari dira ikastaroetan herritarrak. Gomez de Segurak onartu du uste zuela izen emateetan gehiago nabaritu zutela COVID-19aren eragina. «Ez da horrela izan. Sorpresa hartu dut, positiboa. Uste nuen jende gutxiago hurbilduko zela ikastaroetara. Haurrak ia %100eko asistentziarekin etortzen ari dira, eta helduak ere asko ari dira hurbiltzen». Arrakasta horren arrazoia eman du begiraleak: «Jendeak ikusi du segurtasuna bermatzen dela. Pozik dabilta».

Adi: helduen klase eta ikastaroetarako plazak badaude oraindik. Ez galdu aukera, beraz, jardura fisiko segurua bermatzen baitute herriko kirol guneei!

5



Atlantikaldia
2020



infórmate del día a día en
herriko egunerokotasunaren
berri izateko



HERRI BIZIA
herribizia.errenteria.eus



Universo infantil

Txirrita parkean, haurren
irudimenetik sortutako jolas eremu
berria zabaldu dute.



8



Jairik ez, baina 'Hau bizipoza!'

No hubo Magdalenas. Pero la
Comisión de Fiestas dijo:
¡Que viva la vida! Hau bizipoza!



Aldapak lehuntzen

Desde julio, Beraun y la avenida
de Galtzaraborda casi se tocan
por ascensor.



'Herribirusa', crónica fotográfica

Karmele Urruzuno argazkilariak
koronabirusak sortutako sentsazioak
maskara artean bildu ditu.

Argazkia: Ainara Lasa.



Bizi bezala kontatu dute

Estudiantes de ESO han
expuesto en la calle imágenes
y microrelatos con sus
vivencias del confinamiento.



Euskaraldia en entidades

Euskararen erabilerarako ariketa kolektiboari, 'bai' kolektiboa herrian



COVID-19 talka plana

Plan de Choque COVID-19



Laguntzak zaintzaileei

Las personas integradas en el Sistema Especial de Empleados de Hogar del Régimen General de la Seguridad Social cuya actividad se haya visto afectada por el COVID-2019 tienen acceso a una ayuda por parte del Ayuntamiento. Además, se ha incentivado económicamente la contratación para el cuidado de menores de 14 años en verano.

El comercio no está solo

COVID-19aren eraginez euren jarduera aurrera eramateko estuasunak dituzten komertzioek badituzte laguntzak, Bizi Erreterria programa horretara bideratua dago. Tokiko merkataritza sustatzeko komunikazio kanpainaz gain, hainbat 'plan' antolatuta dituzte: zerbitzuak, kultura, edergintza, osasuna...



Acogida inmejorable de la campaña de bonos

Erreterriarrek etxera iritsitako erosketa bonuak erabili dituzte. Izan ere, herriko familia bakoitzak etxean jaso zituen bonuek arrakasta izan dute: herrian 30 eurotik gorako erosketak egiteagatik, 10 euro eman ditu Udalak. 18-35 adin tarteko gazteek bonu gehigarriak jaso dituzte jaso dituzte.

//udal taldeen mezuak//

EL PSE-EE POR LA CONGELACIÓN FISCAL PARA 2021

[PSE-EE] Ante la próxima revisión de las Ordenanzas Fiscales, entendemos que la crisis del Coronavirus está teniendo un impacto negativo en la economía del municipio, tanto a nivel familiar como empresarial, en términos de producción y consumo, así como en la repercusión en el empleo. Consideramos que no es momento de incrementar la presión fiscal a los vecinos. Por ello, propondremos la **CONGELACION** de impuestos, tasas y precios públicos, la **EXENCION** de cobro de la tasa sobre terrazas y veladores, y el **MANTENIMIENTO** de las actuales facilidades de pago.

Es importante continuar con el esfuerzo de contención fiscal para no empeorar la situación económica que están padeciendo los diferentes sectores empresariales y las familias, ofreciéndonos a buscar fórmulas que favorezcan las incertidumbres existentes actualmente para que los diferentes colectivos locales afectados no se vean más perjudicados.

EUSKARALDIA: GEHIAGO, GEHIAGOREKIN, GEHIAGOTAN

[EJ-PNV] Hilabete ingururen bueltan Euskalaldian murgilduta egongo gara bete-betean, bigarren edizioa aurtengo azaroaren 20tik abenduaren 4ra bitarte egingo baita. Euskalaldia gure hizkuntza ohiturak astintzeko helburuarekin sortu zen eta orain bi urte egin zen lehenengo edizioak hark helburu horren lehenengo pausoak ematea lortu zuen. Izan ere, euskalaren ezagutza areagotzen joan bada ere, erabilerara dago gakoa eta erabilerara areagotzeko ezinbestekoa da gure hizkuntza ohiturak astintzea.

Gure hizkuntza bizirik mantentzeko erabiltzea beharrezkoa da eta euskara bizirik mantentzea euskaldun guztion erantzukizuna da. Euskara delako euskaldun egiten gaituena, gure nortasunaren giltzarria, baina baita euskaldunok gizatasunari emateko daukagun altxorretako bat. Guztion konpromisoa beharrezkoa da. Egin dezagun euskaraz, gehiago, gehiagorekin, gehiagotan.

KULTURA ETA KIROLA, PREMIA BIZIKO ONDASUNAK

[Elkarrekin] Osasun- eta hezkuntza-arloko langileek deitutako mobilizazioek, zalantzarik gabe babestu ditugunak, beren jardunean segurtasuna bermatzeko baliabide eta baldintza duinak eskatuz, erdigunean kokatu dute berriro ere inor atzean utziko ez duten, are gutxiago gaur egun dugun egoera korapilatsuan, zerbitzu publikoak izatearen garrantzia.

Desde Elkarrekin Erreterria, entendemos que la cultura y a la práctica deportiva son también bienes de primera necesidad. Por eso, queremos poner en valor las actuaciones realizadas estos últimos meses para garantizar con todas las garantías sanitarias el acceso a los mismos, desarrollando protocolos de seguridad para la práctica deportiva en los polideportivos municipales, el acondicionamiento del skate park de Ondartxo, el cambio del césped del campo de fútbol de Fanderia, la construcción de la cancha del de Beraun o todo el trabajo hecho para sacar adelante la última edición del Atlantikaldia.

Kultura eta kirola ere Erreterria bizitzaz betetzen jarraitzeko.

HELDUENTZAT PROGRAMAZIOA, ELKAR ZAINTZEN

[EH Bildu] Uda joan da, baina COVID19a eta honek dakartzan ondorioak gurean jarraitzen dute eta ez dirudi epe motzean hobera egingo dugunik.

Helduak izan dira, zuzenean zein zeharka egoera hau gehien pairatu duten kolektiboetako bat. Dena aldatu da. Hain ohikoak dituzten sozializazio espazioak (jubilatuta elkarte, emakume elkarte, etab.) itxita egon dira eta epe motzean ere ez dira martxan jartzea aurreikusten. Udaletik hutsune hori betetzeko proposamena luzatu berri da programazio zabal baten bidez. Salbuespeneko neurria salbuespen egoeran.

Zahartze osasuntsu baten bizkarrezurra da behar fisiko zein erlaxionalak ase izatea. Herrian 10.000 pertsonen dute 65 urte edo gehiago eta horietako asko aipatutako elkarrekin ibiltzen dira.

Izan dadila ekimen hau, herri honek elkar zaintzeko egiten duen apustuaren beste pausu bat



Loreek badute zaintzailea

Naturak ematen ditu loreak, baina zaindu egin behar dira, are gehiago herrigunean baldin badaude, haien habitatetik urrun. Errenteriako Udaleko Mantenu Sailaren lorezainen lan taldeak hartzen du horren ardura. Izenak iradokitzen duenetik harago, hainbat lan mota egiteko ardura dute, hasi mantenu lanetatik eta lorategiak eraikitzean buka.

Errenteriako lorezainek —hemezortzi bat dira guztira, langile propio eta kanpoko enpresen artean— Zamalbidera arteko lanak egiten dituzte, herrigunean. Mendi aldea Ingurumen Sailak kudeatzen du, kanpoko enprekin edota Behemendi elkartearekin elkarlanean.

«Jendeak, normalean, lorezainen lana belar eta loreekin lotzen du,

baina hori baino askoz gehiago da. Zuhaitz asko ditugu herrian, zuhaixka asko, parke batzuk ere badaude...», azaldu dute lorezaintza zerbitzuko langileek. Gainera, herrigunea gero eta gehiago handitzen ari dela nabarmendu dute; urbanizazio berriekin batera belardi eta zuhaiztiak ugaritzen ari baitira.

Lorezainek hainbat jardura egiten dituzte. Lore berriak udan eta

neguan sartzen dituzte, ahal bada espezie ezberdinetakoak. Loreak jartzeko irizpideei dagokienez, langile hauek hainbat aldagai hartzen dituzte kontuan: ureztapen sistema hara iristen den; koloreak, esaterako, parke iluna bada kolore biziagoak jartzen dituztelako; jendearen araberakoa (baloiarekin jo-

«Los árboles no solo aportan oxígeno; también ayudan a atenuar el ruido o a filtrar el polvo»

lasten den parkeetan landare gogorragoak)... Ingurune hauek ondo pentsatuta diseinatzen dituzte. Adibide pare bat gehiagoren berri eman dute honetan dihardutenek: zaharren egoitza batean ezin dute sagarrondorik jarri, sagarrekintupust egiteko arrisku handia baitago, edo burura erortzekoa. Haurren jolas parkeetan, berriz, ez dute sekula landare pozoitsurik jarriko.

Urtean behin egin beharreko jarduerak hutsik egin gabe eraman behar dituzte: Atlantikaldia jantzeko jartzen diren landare eta loreak jartzea euren ardura da, baita San Joan Bezperako lertxuna Herriko Plazara eramatekoa ere. Urteroko usadio horren harira azalpen bat eman dute lorezainek: lertxunak oso ondoan hazten dira, eta en-



Argazkia: Kepa Sarasola Gabiola / CC-BY-SA.

tresaka egin behar izaten dute, arbolak modu egokian hazi daitezzen. Urtean 50 bat zuhaitz kentzen dituzte, eta saiatzan dira beste hainbeste sartzen.

Zuhaitzen harira egin beharreko beste lanen artean dago haien izurriteak tratatzea eta hori ere egiten dute udal lorezainek.

Zuhaitzekiko kultura

Zuhaitzekiko errespetuzko jarrerak izatea kostatzen ari dela nabarmendu dute lorezain taldekoek, nahiz eta orain dela urte batzuk baino nabarmenagoa den aintzatzat hartzen direla. «Apreziatzen ari da zein garrantzia duten zuhaitzek, baina oraindik asko falta zai-

gu zuhaitzekin gure bizimodua uzartu ahal izateko. Zuhaitzek dohain asko dituzte, eta ez bakarrik oxigenoagatik: zaratarentzako pantaila bezala funtzionatzen dute; hostoek hauts pila bat jasotzen dute... Horri ez zaio balorerik ematen».

Herritarrek askotan esaten diete lorezainei zuhaitzak moztu ditzatela, pai-

Los residuos y las heces caninas, a su sitio

Los trabajadores del servicio de jardinería del Ayuntamiento de Errenteria se quejan de los restos que encuentran en jardines y parterres. Sobre todo de las heces caninas. «Es algo que nos lo llevamos con nosotros, y tenemos que usar otra lavadora porque no se puede mezclar con la ropa de casa», lamentan. En ese aspecto, sienten la falta de civismo en sus propias carnes, aunque reconocen que son muchos los dueños de pe-

rrero que recogen las excrementos debidamente.

Además, recuerdan que las heces caninas no son abono para el césped, ya que queman la superficie. Pasa lo mismo con la orina de los animales; dicen que no hay más que ver baldosas, paredes o farolas.

Este equipos de trabajo también se queja de los residuos que encuen-

tran en sus zonas de trabajo. Así, al cortar la hierba encuentran un montón de colillas y otro tipo de basura, como latas de cerveza. «Cuando cortamos el césped en un parterre solemos dejar la basura tres ó cuatro días, para darnos cuenta de la suciedad que generamos. Eso no lo da la naturaleza». Por eso, piden por favor que cada residuo —sean de origen animal o después de un uso personal— sea depositado en su debido lugar.

saia ikusten ez dutelako edo farola baten argia estaltzen dutelako. Badira guztiz kontrako jarrera dutenak: arbol bat mozten ikusten dituztenean errieta egiten diete. «Arrazoia azaltzen badiezu, segituan ulertzen dute».

Lorzainek ulertzen dute hainbat herritarrek zuhaitzen beldur pixka bat izatea, batez ere euri asko egin eta haizeak gogor jotzen duen egunetan: «Euria orain ez da lehen bezala, xirimiria egiten zuela. Orain Otik 100era azkarrago pasatzen da: ehun litro bota ditzake, lurra beratzen du, haizea etorri eta zuhaitza bota dezake...». Lasaitasunerako deia helarazi nahi diete herritarrei, zuhaitz ia guztien jarraipen estua egin eta kontrolpean baitituzte.

Ohitura txar baten hobekuntza nabaritzen ari dira loreen kasuan. Orain dela hamar bat urtera arte, lorategi publikoetako lore eta gainontzeko landareak etxera erama-

tea ohikoagoa zen gaur egun baino. «Beti egongo da norbait etxera eramango dituen, edo parranda baten ondoren, lainezak jota, kuadrilla batek kenduko dituenak. Orokorrean, oso ongi errespetatzen dira herriko loreak», gaineratu dute.

Bestalde, herritarrek lorezainen lana gertutik jarraitzen dutela jakinarazi dute: noiz eta nola mozten duten belarra, lore edo landare mota batzuk eskatzen dizkiete...

Loreak udaberriarekin lotzen dira gehien bat, baina lorezainen lana ez da urtaro horretara mugatzen. «Jende askok galdetzen digu ea eguraldi txarrarekin tailerrean gelditzen garen. Guk ezetz erantzuten diegu, kalean beti dagoela zerbait egiteko: eskailak mozten, zuhaitzak aldatzen, adarrak kimatzen... Herri hau oso handia da, eta beti dago zerbait egiteko. Zuhaitz eta lore pila bat daude, zorionez».

Lucha contra la avispa asiática

Los jardineros no solo se encargan de cuidar la flora, sino también parte de la fauna. Por ejemplo, también se aplican en la lucha contra la avispa asiática.

El Ayuntamiento de Erreterria toma parte en una comisión que tiene como objetivo formar y asesorar en medidas contra esa especie invasora. Así, han realizado un vídeo donde se informa a las personas que tiene como objetivo luchar contra esa avispa: explican cómo quitar los nidos, el ciclo biológico... Sigue siendo un problema «muy potente», tanto por las picaduras como por la amenaza que supone para la abeja autóctona.

Antes anidaban en los bosques, pero ahora tienen tendencia a buscar acomodo en las áreas urbanas. En Erreterria se quitan al año unos 50 nidos, de todo tipo de lugares: balcones, azoteas, árboles... e incluso campanas extractoras. Solo un 10% de los casos se dan en zonas periurbanas. También intervienen con las abejas comunes, ahuyentándolas cada vez que se puede.

Es un equipo de tres personas la que se encarga del trabajo. Tienen ocho años de experiencia en la materia. Utilizan camiones, carabinas de aire tipo *paintball*, pértigas para inyectar veneno...

El nido primario de las avispas tiene forma de pelota de tenis. Por eso, si algún vecino ve algo parecido, piden que avise de inmediato al ayuntamiento. De ese nido salen unas 50 avispas, y la reina emigra para hacer un nido secundario: pueden crearse unas 300 reinas, y, por consiguiente, otros tantos nidos.

Argazki zaharra

Argazkia 1960ko hamarkadaren amaierakoa da. Beraundik pasatzen den AP-8aren ibilbidea ikus daiteke bertan, eta, aldi berean, hiribilduko eta inguruko hainbat futbolari kirol horretan lehen urratsak egin zituzten hartxintzarrezko futbol-zelaiak. Gune hori, gainera, hainbat ekitaldirako erabiltzen zen: besteak beste, zezen-plaza bat jarzen zen Guadalupeko jaietan. Gaur egun, ingurune hori hartzen dute Mikel Odriozola estadioak eta erabileraren frontoi estali batek. Pontikatik jaitzita, berri, zuhaitzez betetako pasealeku zabal eta lorategidun batez goza daiteke. Zonaldea golik behera aldatu da azken hamarkadetan.

Ba al zenekien...

Erreterria cuenta con una densidad de **1256,7** personas por kilómetro cuadrado

Erreterria tiene **40.141** habitantes (EUSTAT, diciembre **2019**), y a su vez una extensión de **3.194** hectáreas (**31,94** kilómetros cuadrados). Por lo tanto, tiene una densidad poblacional de **1.256,7** habitantes por kilómetro cuadrado. Lógicamente, la mayor parte de la población vive en el núcleo urbano. Pero la villa tiene **24,47** kilómetros cuadrados de zonas no urbanizables, la mayoría de monte. Si se compara con los otros dos municipios más poblados de Gipuzkoa, Erreterria es la que menos densidad tiene, ya que Donostia se eleva a **2.977,9** habitantes por kilómetro cuadrado, y la cifra de Irun es de **1.430,3**.

Txoko bat

Nafarroa Zuhaitzia, para relajarse

No está lejos del centro, a cinco minutos andando. Tiene paseos amplios, jardines, bancos, cancha deportiva multiusos, parque infantil, y zona con aparatos de ejercicio físico, destinada sobre todo para los y las mayores. Se puede oír cómo baja el río Oiartzun, y ahora, en otoño, el suelo está lleno de hojas que han caído de las decenas de árboles de diferentes especies. En verano esta vegetación protege del sol a quienes pasean, y en los días duros de invierno hace más llevadera la 'vuelta'. Es una zona para relajarse, otro pulmón más para la villa.





EUSKARALDIA

EUSKARALDIA GEHIAGO, GEHIAGOREKIN, GEHIAGOTAN

Azaroaren 20tik abenduaren 4ra

***Eman izena, zure ahobizi edo
belarriprest rola aukeratuz!***



Izen-ematea:

www.euskaraldia.eus • Lau Haizetara
Euskaldunon Topagunean (Pablo Iglesias kalea, 11)

Aldizkari honen hurrengo zenbakiak herritik kanpo bizi den errenteriarren batek jasotzea nahi baduzu bete ezazu beheko formularioa. Si quieres que alguna o algún errenteriarra que viva fuera reciba los siguientes números de la revista háznos llegar sus datos rellenando el formulario:

Izena Nombre _____

Helbide osoa Dirección completa _____



Errenteriako Udala

Entrega ezazu kupoa udaletxean edo jarri gurekin harremanetan herribizia@errenteria.eus edo 943-44 96 00 telefonoan.

Entrega este cupón en el ayuntamiento o ponte en contacto con nosotros a través de herribizia@errenteria.eus o el teléfono 943-44 96 00.